



aballarri

EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

AURTEN ERE, EUSKARALDIAREKIN BAT!

Egape Ikastolan, bere hastapenetatik honainoko ibilbidean, euskara eta euskal kulturaren murgiltzen gara eta hori izan da urte luze hauetan ikastolaren xede nagusietako bat.

Ikasleak gure hizkuntzan trebatzen ditugu eta gure kulturaren hezten ditugu. Hori dela eta, ikastolako ibilbide luzean jarduerak antolatzen ditugu gure ikasleentzako eta kultur ekintza askotan parte hartzen dugu.

Aipatu beharra dugu Egape Ikastolako Hezkuntza Proiektua euskal curriculumean oinarrituta dagoela LH 1. mailatik hasi eta DBH 4. mailaraino KIMU eta EKI proiektuak landuz. Bestalde, egiten ditugun ekintza eta jardueren artean zabalkunde desberdinetakoak ditugu.

Batetik, Euskal Herri osoa hartzen dutenak izaten dira eta Egape Ikastolako komunitateak bere aletxoak jartzen du, Korrikan, Euskaraldian, Euskararen egunean, esate baterako. Bestetik, berriz, ikastolan bertan, ikasurtero, Hizkuntza Normalkuntza Planaren barruan biltzen ditugun ekintzak bideratzen dira, hala nola, idazleak ikastetxean, Zinea euskaraz, Gu ere bertsotan, antzerkia eskolan, Solas eta jolas, maleta ibiltaria, Antia lehiaketa, euskal musikariak eskolan, antzerki ikuskizunak, euslidenren taldea, tertulia literarioak, booktrailer lehiaketa...

Desde sus inicios, en Egape Ikastola, uno de los principales objetivos ha sido la transmisión del euskara y la cultura vasca.

Formamos a los alumnos y las alumnas en nuestra lengua y los educamos en nuestra cultura. Organizamos múltiples actividades para todo el alumnado y participamos en numerosas actividades culturales.

Hay que señalar que el Proyecto Educativo de Egape está basado en el currículo vasco trabajando desde 1º de Primaria hasta 4º de Secundaria los proyectos KIMU y EKI. Además, se realizan acciones y actividades diversas.

Por un lado, participamos en iniciativas que abarcan a toda Euskal Herria como Korrika o Euskaraldia donde la comunidad de la Ikastola pone su granito de arena. Por otro, organizamos actividades que se recogen en el Plan de Normalización Lingüística que se diseña todos los años como por ejemplo, escritores en el centro, cine en euskara, "Gu ere bertsotan", teatro en la escuela, "Solas eta jolas", la maleta ambulante, el concurso Antia, músicos vascos en la escuela, "Euslidenrak", tertulias dialógicas, concurso de booktrailer....





ZEIN POLITA DEN ZU EUSKARAZ ENTZUTEA



“Leloen bilduma” proiektua, 2024/2025 ikasturtean Egape Ikastolan sorturiko proiektua da. Proiektu hau burutzearen ideia, ikasturte honetan HNB lan taldeak Euskararen egunerako egindako proposamenaren haritik sortu da. Proiektu honetan Lehen Hezkuntzako maila guztiek parte hartu dute, bakoitzak bere neurrian.

Helburuak ondorengo hauek dira:

- Euskararen aldeko interesa eta erabilera bultzatzea.
- Ikastetxe bezala, ikasturte bakoitzean euskararen aldeko lelo bat aukeratzea.
- Lelo hau ikastetxeko patioan hormairudi batean jasota geratzea.
- Egunerokotasunean euskararen aldarri gisa leloa erabiltzea norbait gazteleraz entzundakoan.

Proiektu hau aurrera eramateko azaroko lehen astearen amaierarako leloa aukeratu da. Horretarako, lehenik gela bakoitzak bere leloa aukeratu du eta ondoren, lelo horiek kontuan hartuta, bigarren astearen amaierarako zikloko bat bozkatu da. Amaitzeko, hirugarren astearen amaierarako, ziklo guztien artean bakar bat bozkatu da eta hori izan da Euskararen egunerako leloa zein ikasturte honetarako leloa. Aurtengo leloa, “Zein polita den zu euskaraz entzutea” izan da.

Behin leloa aukeratuta, guraso ilustratzaile edo artista bati eskatu zaio logoa egitea eta ikastetxeko horma batean marratzea Euskararen egunerako. Honela, ikastetxeko hormak ikasturtez ikasturte apaintzen joango gara.

El proyecto “Colección de lemas” es un proyecto creado en Egape Ikastola durante el curso 2024/2025. La idea de llevar a cabo este proyecto surge de la propuesta realizada este curso por el grupo de trabajo HNB para el Día del Euskera. En este proyecto participan todos los niveles de la Educación Primaria, cada uno en su medida.

Los objetivos son los siguientes:

- Fomentar el interés y el uso del euskera.
- Como centro, elegir cada curso un lema a favor del euskera.
- Plasmar el lema en un mural en el patio del centro.
- Utilizar el lema como reclamo del euskera en el día a día al escuchar a alguien en castellano.

Para llevar a cabo este proyecto se ha elegido el lema para finales de la primera semana de noviembre. Para ello, primero cada aula ha elegido su lema y después, teniendo en cuenta estos lemas, para el final de la segunda semana se ha votado uno del ciclo. Para finalizar, para el final de la tercera semana, entre todos los ciclos se ha votado uno solo y ese ha sido el lema tanto para el Día del Euskera como para el curso. Este año, el lema elegido ha sido “Zein polita den zu euskaraz entzutea”.

Una vez elegido el lema, se ha pedido a un padre ilustrador que elabore el logo y lo dibuje en una pared del centro para el Día del Euskera. Así, se irán decorando las paredes del colegio curso tras curso.





KULTUR ASTEA

Egape Ikastolak urteak daramatza Kultur Astea antolatzen ikasturte amaiera aldera. Azken urteetan ekainean ospatu bada ere, egindako balorazioen haritik, aurtengoan maiatzean ospatu da. Bertan, ikasturtean zehar landutakoaren emaitza ikusteko parada izan genuen gerturatutako guztiok.

Maiatzaren 19 eta 21ean antzerki emanaldia eskaini zuten Saroben LH 2 eta LH 3ko ikasleek. Goizeko emanaldiak ikasle eta irakasleei zuzenduak izan ziren eta arratsaldekoak familiei. Maiatzaren 19an, Bertso saioak ere izan genituen, saio hauek LH 4-5 eta 6. mailakoek eskaini ziizkiguten ikastetxean bertan ikasle eta irakasleoi. Azkenik, maiatzaren 22an, LH 6ko ikasleen eskutik, abesbatza emanaldia izan genuen Plazido Muxika plazan herritar zein irakasle eta ikasleentzat.

Lan bikaina egin dute ikasleek ikasturte honetan ere, gure begi eta belarriek gozatu ederra hartu zuten oraingoan ere.



SEMANA CULTURAL


Egape Ikastola lleva años organizando la Semana Cultural hacia el final de curso. A pesar de que en los últimos años se ha celebrado en junio, a raíz de las valoraciones realizadas, este año se ha llevado a cabo en mayo. Así pudimos ver el resultado de lo trabajado durante el curso.

Los días 19 y 21 de mayo el alumnado de LH 2 y LH 3 ofreció una representación teatral en Sarobe. Las actuaciones de la mañana fueron dirigidas al alumnado y al profesorado y las de la tarde a las familias. El 19 de mayo, también tuvimos sesiones de bertso; estas sesiones ofrecidas por el alumnado de LH 4-5 y 6 estuvieron dirigidas a todo el público de Egape Ikastola en el propio centro.

Por último, el 22 de mayo, el alumnado de LH 6 ofreció una actuación coral en la plaza Plazido Muxika para todo el público que se acercó al evento.

Como en años anteriores, los alumnos y las alumnas han realizado un gran trabajo durante este curso, y todos nosotros hemos disfrutado de una gran semana.





Etxeberrri 3/4, Urnieta.
943 00 95 58
egape@egape.eus

Lizardi kalea, 5, Urnieta.
943 00 92 75
egape@egape.eus

Azkorte kalea z/g, Urnieta.
943 89 94 25
egapebhi@egape.eus

